HIRUGARRENA.- 2024ko abuztuaren 30ean korporazioko osoko bilkurak onartu zuen Tolosako Udalaren kirol-zerbitzuak osorik kudeatzeko kontratua suntsiaraztea, bi aldeek ados jarrita. Irizpenean jasotzen zen bezala, pleguetan aurreikusitako inbertsioetatik 2024ko abuztuaren 31 arte zati bat besterik ez zen exekutatu behar. Aldameneko koadroan ikus daitezke kontratuaren hasieratik eta suntsiarazpen egunera arte egin beharreko inbertsioen koadroa. Egindako inbertsioei buruz, Udalak eskatu du horien justifikazio dokumentala.

| | EMAKIDADUNAK EGINBEHARREKO INBERTSIOAK: 2022-2023 | ESTIMAZIOA € |
|---|---|---|
| | ***Esleipeneko hobekuntza proposamenetik:*** | |
| 1 | *Doble puerta Usabal* | 15,000,00 € |
| | | |
| | ***Azterketa ekonomikoan aurreikusitako inbertsio programatik:*** | |
| 2 | *Renovar Peso libre gimnasio Usabal* | 40,000,00 € |
| 3 | *Luces LD 22 focos F7-solarium + 5 focos anexo campo F11 Usabal* | 10,000,00 € |
| 4 | *Verano: caseta bibliopiscina + ampliación zonas sombra actúal (pérgolas, sombrillas esparto etc…) Usabal* | 20,000,00 € |
| 5 | *Rehacer suelo 2 pistas tenis Berazubi (reparación y colocación pavimento sintético o similar)* | 50,000,00 € |
| 6 | ***Cambio de Megafonia y red Beotibar por renovación (acuchillamiento y marcaje profesional) pista principal*** | **40,000,00 €** |
| | **GUZTIRA** egin behar duean 2024ko abuztuaren 31 baino lehen: | **175.000,00 €** |

LAUGARRENA.- PTPPn zehazten denez, “*Inbe rtsio horietakoren bat bi aldeek adostuta alda daiteke, egokitasunari erreparatuz eta interes orokorra kontuan hartuta, baldin eta hasieran planteatutako inbertsioren bat egiten ez bada.*”, hortaz, Kirolak Sailak planteatuta, eta interes orokorreko arrazoiak zirela eta, egin beharreko inbertsioetan aldaketa egin zen. Aurrekoa aintzat hartuta, kontratuaren suntsiarazpena adostu zenean, jarraian azaltzen diren inbertsioak zeuden egiteke, hortaz, Udalak hilabeteko epea eman zion enpresa emakidadunari egiteke zeuden inbertsio horiek egin zitzan.

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

BOSGARRENA.- Udalak emandako gehineko epea igarota, eta hogeigarren aurrekarian zehaztutakoaren arabera, hauek dira 2024ko azaroaren 4an egiteke zeuden inbertsioen egoera:

| **Estadio Berazubi:** | **situación** |
|---|---|
| 1.- Modificación del depósito acs del estadio Berazubi: Conclusión del informe de certificación RITE emitido el 3 de marzo de 2024. | Sin concluir. pendiente visita de la empre certificador (ingein). |
| 2.- Robo cableado en el estadio Berazubi desde el 17 de agosto de 2024: Se ha enviado requerimiento a la concesionaria el 11 de septiembre. Queda pendiente restablecer el servicio eléctrico de las 4 torres del campo de futbol. | Servicio restablecido el 26 de octubre. la factu está pendiente de pago. una vez que BPXPOI realice el pago al proveedor, el Ayuntamiei abonará su importe a bpxport. |
| 5.- En el gimnasio de abonados del estadio Berazubi no funcionan varias máquinas. En la inspección del 19 de septiembre de 2024 no funciona una cinta de correr y 2 elípticas de la marca presto. | en proceso. aprobado el presupuesto, pero : ejecutar. |
| 6.- Renovación total suelo de dos pistas de tenis exteriores. | Aceptado presupuesto. Sin ejecutar. Bpxport manifestado la incapacidad material para lleva cabo en próximas fechas la inversi correspondiente |
| **Usabal kiroldegia:** | |
| 8.- Averiado el sistema de megafonía del polideportivo Usabal: No es posible emitir mensajes de evacuación, al menos desde el 19 de marzo. | en proceso. aprobado el presupuesto, pero : ejecutar. |
| 9.- ACS sin trataniento polideportivo Usabal. Sin tratamiento desde principios de verano. | en proceso. aprobado el presupuesto, pero : ejecutar. |
| 13.- Rotura de lunas en diferentes puntos del polideportivo Usabal (pasillo de tiro con arco y duchas alrededor de la sauna) | en proceso el de las duchas alrededor de sauna. aprobado el presupuesto, pero : ejecutar. |
| **Frontón Beotibar y Uzturpe:** | |
| 18.- Sustitución nuevo sistema de red lateral y rebote. | en proceso. aprobado el presupuesto, pero : ejecutar. |
| **Usabal kiroldegia:** | |
| 20.- Sustitución de los 8 bancos multiajustables del equipamiento fitness debido a las holguras observadas. | pendiente. reclamada al proveedor. |

*Birjarpen inbertsio hauek gauzatzeke edo agiri bidez egiaztatzeke daude:*

| | |
|---|---|
| Cambio sonda máquina de cloro (pendiente factura) | 795,34 |
| Medidor temperatura y humedad (pendiente factura) | 221,26 |
| Sonda temperatura piscina (pendiente factura) | 70,00 |
| Sistema de megafonía Usabal (sin ejecutar) | 1.544,00 |
| Red motorizada Beotibar (sin ejecutar) | 23.917,93 |
| Total | 26.548,53 |

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

***Inversiones planificadas***
*Está PENDIENTE la acreditación documental, mediante las facturas u otra forma de justificación, de parte de las inversiones a que hace referencia el anexo que se incorpora como documento nº 3 en el acuerdo de resolución de mutuo acuerdo del contrato de concesión de servicios de 30 de agosto de 2024, así como del resto de las inversiones programadas y realizadas anteriores a dicha fecha.*

***Cuentas anuales***
*BPXport ha presentado las cuentas anuales de la sociedad correspondientes al ejercicio terminado a 31 de diciembre de 2023, juntamente con el informe de auditoría emitido por Moore Ibergrup Auditores SAP.*

***NO SE HAN PRESENTADO** las cuentas anuales auditadas relativas exclusivamente al servicio objeto de concesión, de los años 2022 (01/09 a 31/12), 2023 y 2024 (01/01 hasta la finalización del contrato), tal y como recoge el apartado 4.18 del pliego de prescripciones técnicas.*

*En su lugar se han presentado 3 cuadros que recogen las cuentas de pérdidas y ganancias de cada uno de los ejercicios, desglosada por subcuentas. A la vista de ello se acuerda proponer a un auditor externo para llevar a cabo una revisión de las cuentas del servicio objeto de la concesión, referido a los períodos señalados, con el fin de validar los datos presentados por el concesionario. El trabajo será encargado por el ayuntamiento de Tolosa, con la conformidad de BPXport. El coste será repercutido a BPXport y se incluirá en la liquidación del contrato.*

Beraz, aurreko dokumentuetan ikus daitekeen bezala, **BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresak ez ditu gauzatu suntsiarazpen-akordioan adostutako inbertsioak.**

SEIGARRENA.- Aurrekoaz gain lizitazioa arautu zuten preskripzio tekniko partikularren pleguko (PTPP) 4.18 puntuan (25. orrialdean), hau zehazten da urteko kontuei buruz:

*Ikuskatutako urteko kontuak eta auditoretza-txostena, agiri hauetan aipatzen den emakidaren xede den zerbitzuari buruzkoa.*

Era berean PTPPko 7. puntuan (31. orrialdean) hau zehazten da:

*Urte bakoitzeko martxoaren 31 amaitu baino lehen, enpresa emakidadunak honako dokumentu hauek aurkeztuko ditu:*
*- Aurreko urteko ustiategiaren urteko kontua, behar bezala ikuskatutako*

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

| |
|---|
| *instalazio bakoitzaren arabera banakatuta.* |

Beraz, agerian geratzen da enpresak emakidaren urteko kontuak aurkeztu behar dituela, behar bezala ikuskatuta eta kirol-instalazio bakoitzeko banakatuta. Gainera, suntsiarazpen-erabakian ezarri zen bezala, auditatutako kontu horiek Merkataritza Erregistroan gordailutu behar dira udalean aurkeztu aurretik. Puntu honetan, azpimarratu behar da enpresak aurkeztutako kontuak, auditatu badira ere, **ez direla Merkataritza Erregistroan gordailutu, eta, gainera, merkataritza-sozietate osoari egiten diotela erreferentzia, nahiz eta PTPPn berariaz adierazita egon emakidak bere kontu propioak izan behar dituela.** Horregatik, ez da betetzen ez PTPPn ez ebazpen-akordioan xedatutakoa.

Horiek horrela, Tolosako Udalak eskatu beharko du kanpo-ikuskaritza bat, Tolosako emakidari dagozkion urteko kontuen egoera egiaztatzeko, betiere. Auditoria hori, Udalak enkargatua, emakidadunaren kontura egin beharko da, eta, horrek ordaintzen ez badu, emakidadunak jarritako bermearen kontra egin beharko da. Tolosako Udalak Betean Auditoría enpresari eskatutako aurrekontuen arabera, 2022ko irailaren 1etik 2024ko abuztuaren 31 bitarteko kontuen ikuskaritza egiteak 6.900 euroko kostua du BEZ gabe.

ZAZPIGARRENA.- Aurreko puntuan azaldutako arrazoiengatik, ezin da kontratuaren likidazioa egin; beraz, likidazioa eta mozkin aldakorraren banaketa, halakorik balego, atzeratu egin beharko da Tolosako emakidaren kontuak behar bezala ikuskatu arte.

ZORTZIGARRENA.- Aurrekoarekin lotuta, hemen adierazi behar da BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresak aurkeztutako urteko kontuetan akatsak edo omisioak antzeman direla. Horrela, urtean zehar bidalitako 2022. urteko kontuetan “62300007 Management Fee – Gtos Generales” partidan 71.106 euroko gastua zegoen inputatuta irailetik abendura. Orain, behin betiko aurkezpenean, eta suntsiarazpen akordioan xedatutakoarekin bat etorriz, partida hori 0 eurora egokitu da, aldiz, lehen “60700000 servicios de profesionales independientes” partidan 3.369,83 euroko gastua inputatzen zen eta orain, berriz, 74.902,35 eurokoa. Bukatzeko, “607000001 trabajos realizados por otras empresas” partidan 11.865,06 euroko gastua inputatzen zen eta orain 24.660 euro. Laburbilduta, suntsiarazpen akordioan eskatu bezala Management Fee partida 0 eurora jeitsi da, baina “aprovisionamientos” atala 84.327,46 eurotan igo du enpresak (horiz); horrela, 13.221,46 eurotan igo dute gastuen kopurua. Halaber, elektrizitatean ere igoera egon denez, **guztira, behin betiko kontuetan 13.804,49 euroko gastua gehitu dute urteko kontuetan.**

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

| Descripción | definitivo | dato anterior | diferen |
|---|---|---|---|
| **1. Importe neto cifra de negocios** | **758.214,45** | **758.214,45** | |
| | | | |
| **4. Aprovisionamientos** | **-137.325,03** | **-52.997,57** | -84.3 |
| 607000000 SERV.PROF.INDEP. (AUTONOMOS SE | -74.902,35 | -3.369,83 | -71.5 |
| 607000001 TRABAJOS REALIZADOS OTRAS EMPR | -24.660,00 | -11.865,06 | -12.7 |
| | | | |
| **7. Otros gastos de explotación** | **-315.714,85** | **-386.073,61** | 70.3 |
| 623000007 Management Fee - Gtos Generale | 0,00 | -71.106,00 | 71.1 |
| 628000000 ELECTRICIDAD | -134.170,99 | -133.423,75 | -7 |
| | | | |
| **D) Resultado del ejercicio (C+19)** | **14.656,76** | **28.461,25** | -13.8 |

2023. urteko kontuetan era desberdintasunak antzeman dira urtean zehar bidalitako eta behin betiko datuen artean. Horrela, lehen “60700000 servicios de profesionales independientes” partidan 51.908,10 euroko gastua inputatzen zuen enpresak eta behin betiko kontuetan 99.180,55 euro. Horrela, **47.272,45 euroko gastua gehitu dute urteko kontuetan.**

| Descripción | definitivo | dato anterior | diferen |
|---|---|---|---|
| **1. Importe neto cifra de negocios** | **1.087.535,78** | **1.087.535,78** | |
| | | | |
| **4. Aprovisionamientos** | **-209.264,64** | **-161.992,39** | **-47.2** |
| 607000000 SERV.PROF.INDEP. (AUTONOMOS SE | -99.180,55 | -51.908,10 | -47.2 |
| 607000001 TRABAJOS REALIZADOS OTRAS EMPR | -87.034,80 | -87.034,80 | |
| | | | |
| **D) Resultado del ejercicio (C+19)** | **-316.740,96** | **-269.263,65** | **-47.4** |

2024. urteko kontuei buruz ezin da gehiegi sakondu konparatzeko daturik ez baitago. Hemen adierazi behar da, lizitazioa arautu zuen administrazio baldintza partikularren pleguan zehaztutakoaren arabera, AGEM Consultores egindako azterketa ekonomikoa lizitazioa arautzen duen dokumentazioaren zati banaezina dela, hau da, loteslea da azterketa ekonomiko horretan azaltzen diren datuak, partidak eta gastuen koadroaren egitura. Era berean, loteslea da enpresa emakidadunak aurkeztu zuen proposamena eta bertan, ez ziren jasotzen arestian aipatutako gastu-partida horiek. Hortaz, eta suntsiarazpen-akordioan adostu zen bezala, partida horiek ezin dira urteko-kontuetan azaldu, are gutxiago, partida horiek kendu eta horien zenbatekoa beste partidatan inputatzea.

BEDERATZIGARRENA.- Entzunaldiaren izapidetzeari buruz 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 82 artikuluan hau zehazten du:

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

*<u>Artículo 82. Trámite de audiencia.</u>*
*1. Instruidos los procedimientos, e inmediatamente antes de redactar la propuesta de resolución, se pondrán de manifiesto a los interesados o, en su caso, a sus representantes, para lo que se tendrán en cuenta las limitaciones previstas en su caso en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre.*
*La audiencia a los interesados será anterior a la solicitud del informe del órgano competente para el asesoramiento jurídico o a la solicitud del Dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma, en el caso que éstos formaran parte del procedimiento.*
*2. Los interesados, en un plazo no inferior a diez días ni superior a quince, podrán alegar y presentar los documentos y justificaciones que estimen pertinentes.*
*3. Si antes del vencimiento del plazo los interesados manifiestan su decisión de no efectuar alegaciones ni aportar nuevos documentos o justificaciones, se tendrá por realizado el trámite.*
*4. Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta en la resolución otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por el interesado.*
*5. En los procedimientos de responsabilidad patrimonial a los que se refiere el artículo 32.9 de la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público, será necesario en todo caso dar audiencia al contratista, notificándole cuantas actuaciones se realicen en el procedimiento, al efecto de que se persone en el mismo, exponga lo que a su derecho convenga y proponga cuantos medios de prueba estime necesarios.*

Kasu honetan, kontratazio-organoak espedienteari hasiera eman eta dagokion ebazpen-proposamena interesdunari jakinarazi beharko dio, interesdunak egokitzat jotzen duen dokumentazioa aurkez deza, dagokion errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, **10 egun balioduneko epean.** <u>Epe hori igarota alegaziorik egongo ez balitz, proposamenarekin ados dagoela ulertuko litzateke. Era berean, emandako epe horretan espresuki adierazi dezake proposamenarekin ados dagoela.</u>

HAMARGARRENA.- Kontratuaren likidazioari buruz hau zehazten da lizitazioa arautzen duen administrazio baldintza partikularren pleguan:

*<u>56. klausula. Prestazioa jasotzea eta kitapena.</u>*
*Kontratistak kontratuaren baldintzak eta xedea osorik betetzen dituenean emango da kontratua amaitutzat, administrazioa lanarekin ados badago.*
*Aurreko klausulan adierazten diren izapideak amaituta eta HAKLAOren 204.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako, kontratuaren xede den prestazioak beharrezko baldintzak betetzen dituela irizten bazaio, kontratatutako prestazioa jasoko da.*
*Administrazioak prestazioa jasotzeko edo harekin ados dagoela adierazteko*

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

*ekitaldi formala hurrengo hilabetearen barruan egingo da, kontratuaren xede den prestazioa ematen edo burutzen denetik. Ogasun eta Finantza Administrazioaren Sailari ekitaldiaren berri emango zaio, ekitaldira bertaratu eta inbertsioaren egiaztapen materiala egin dezan, hari dagozkion eginkizunen baitan.*

*Bermealdia amaitzen den arte, kontratuaren xede den prestazioa zuzen burutu izana eta egon daitezkeen akatsak adjudikaziodunaren kontura izango dira, eta administrazioaren ordezkariek zerbitzuak garatzean lanak aztertu edo berrikusteak edo egiaztapen, balioztapen edo ziurtagiri partzialetan onartu izanak ez dio inolako eskubiderik emango, ezta erantzukizunetik aske utziko ere.*

*Kontratistaren prestazioa jasotzeko moduan ez badago beharrezko baldintzak betetzen ez dituelako, idatzizko jarraibideak emango zaizkio antzemandako akatsak konpondu eta dagozkion betebeharrak zehaztutako epean bete ditzan. Prestazioa ez da jasoko jarraibide horiek betetzen ez diren arte.*

*Burututako lanak kontratatutako prestazioaren araberakoak ez badira kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsengatik, kontratazio-organoak prestazio horri uko egin diezaioke, eta ez du ordaintzeko obligaziorik edukiko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.*

*Hala badagokio eta kontratuaren izaerak horrela eskatzen badu, kontratuari dagokion kitapena egingo zaio, hogeita hamar eguneko epean, prestazioaren ados dagoela adierazi edo jaso duen datatik zenbatzen hasita. Kontratistari jakinaraziko zaio, eta, hala badagokio, dagokion saldoa ordainduko zaio. Edonola ere, prestazioa jasotzeko ekitaldiaren ondoren hartzen bada faktura, hogeita hamar eguneko epea kontratistak dagokion erregistroan behar bezala aurkezten duenetik hasiko da zenbatzen, faktura elektronikoko arloan indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betez.*

*Kitapeneko saldoa ordaintzean berandutzerik balego, kontratistak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du, merkataritza-eragiketetan berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 legeak aurreikusitako baldintzetan.*

*SPKLren 291. artikuluan xedatutakoaren arabera, emakidaren epea amaitutakoan, zerbitzua Administrazioari itzuliko zaio, eta kontratuaren arabera behartuta dagoen obra eta instalazioak kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera egokian entregatu beharko ditu kontratistak. Administrazioan eskumena duen organoak ondasunak hitzartutako baldintzetan entregatzen direla egiaztatzeko xedapenak emango ditu, itzulketa egin baino zentzuzko aldi batez – Pleguan ezarri beharko da –. Artikulu honetan ezarritakoaren arabera administrazioari itzuli behar zaizkion emakidari lotutako ondasunak ezin izango dira enbargatu.*

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

*<u>59. klausulak. Akatsak edo hutsegiteak bermealdian zehar.</u>*

*Bermealdian zehar burututako lanek akatsak edo hutsegiteak dituztela*

*egiaztatzen bada, kontratazio-organoak horiek konpontzeko eska diezaioke kontratistari.*
*Bermealdia amaituta administrazioak aurreko ataletan aipatutako salaketa edo eragozpenak formalizatzen ez badu, kontratistak ez du emandako prestazioaren gainean inolako erantzukizunik izango.*
*Zerbitzuetako kontratuak obra-proiektu bat osorik egitea aurreikusten duenean eta proiektu horrek akatsak, gabezia teknikoak, hutsegiteak edo desbideratzeak dituela egiaztatzen denean, zuzenketa-espedientea irekiko da, SPKLren 314. eta 315. artikuluekin adostasunean.*
*Kontratistak kontratatutako prestazioaren gainean emandako oharrak ezagutzeko eta haren iritzia emateko eskubidea edukiko du.*

*23. klausula. Behin betiko bermea itzultzea eta kitatzea.*
*Behin kontratuaren kitapena onartuta, behin betiko bermearen bidez gauzatu beharreko erantzukizunik ez badago eta agiri honen I. eranskineko 32. idatz-zatian zehazten den bermealdia amaitu bada, bermea itzultzea erabakiko da.*

*58. klausula. Bermealdia.*
*Bermealdia administrazioak prestazioarekin ados dagoela adierazten den edo prestazioa jasotzen duen datan sartuko da indarrean, eta agiri honen I. eranskineko 32. idatz-zatian jasoko da.*
*Epe horretan, behin betiko bermeak SPKLren 110. artikuluan adierazten diren eta aplikaziozkoak zaizkion kontzeptuak estaliko ditu.*
*Prestazioaren jasotze partzialak egiten badira, administrazioaren onespenarekin eman eta jasotako ondasunen bermealdia jasotzen diren egunetik egongo da indarrean.*

*59. klausulak. Akatsak edo hutsegiteak bermealdian zehar.*
*Bermealdian zehar burututako lanek akatsak edo hutsegiteak dituztela egiaztatzen bada, kontratazio-organoak horiek konpontzeko eska diezaioke kontratistari.*
*Bermealdia amaituta administrazioak aurreko ataletan aipatutako salaketa edo eragozpenak formalizatzen ez badu, kontratistak ez du emandako prestazioaren gainean inolako erantzukizunik izango.*
*Zerbitzuetako kontratuak obra-proiektu bat osorik egitea aurreikusten duenean eta proiektu horrek akatsak, gabezia teknikoak, hutsegiteak edo desbideratzeak dituela egiaztatzen denean, zuzenketa-espedientea irekiko da, SPKLren 314. eta 315. artikuluekin adostasunean.*
*Kontratistak kontratatutako prestazioaren gainean emandako oharrak ezagutzeko eta haren iritzia emateko eskubidea edukiko du.*

Horrela, emakidadunak bere gain hartutako betebeharrak ez betetzeagatik eta eragindako kalte-galerak konpentsatu ahal izateko, SPKLk aurreikusitakoaren arabera, horrek jarritako bermearen kontra egin beharko lirateke kontratua

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

likidatu aurretik.

HAMAIKAGARRENA.- Azaldutako arrazoiengatik, beharrezkoa izango da prozeduran zehar emakidadunari dokumentazioa errekeritzea, kanpoko auditoretza eskatzea ea. Hortaz, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 22. artikuluan xedatutakoa hartu behar da kontuan ebazteko gehienezko epea eteteari dagokionez.

*Artículo 22. Suspensión del plazo máximo para resolver.*

*1. El transcurso del plazo máximo legal para resolver un procedimiento y notificar la resolución se podrá suspender en los siguientes casos:*

***a) Cuando deba requerirse a cualquier interesado para la subsanación de deficiencias o la aportación de documentos y otros elementos de juicio necesarios, por el tiempo que medie defecto, por el del plazo concedido, todo ello sin perjuicio de lo previsto en el artículo 68 de la presente Ley.***

*b) Cuando deba obtenerse un pronunciamiento previo y preceptivo de un órgano de la Unión Europea, por el tiempo que medie entre la petición, que habrá de comunicarse a los interesados, y la notificación del pronunciamiento a la Administración instructora, que también deberá serles comunicada.*

*c) Cuando exista un procedimiento no finalizado en el ámbito de la Unión Europea que condicione directamente el contenido de la resolución de que se trate, desde que se tenga constancia de su existencia, lo que deberá ser comunicado a los interesados, hasta que se resuelva, lo que también habrá de ser notificado.*

*d) Cuando se soliciten informes preceptivos a un órgano de la misma o distinta Administración, por el tiempo que medie entre la petición, que deberá comunicarse a los interesados, y la recepción del informe, que igualmente deberá ser comunicada a los mismos. Este plazo de suspensión no podrá exceder en ningún caso de tres meses. En caso de no recibirse el informe en el plazo indicado, proseguirá el procedimiento.*

*e) Cuando deban **realizarse pruebas técnicas o análisis contradictorios o dirimentes propuestos por los interesados**, durante el tiempo necesario para la incorporación de los resultados al expediente.*

*f) Cuando se inicien negociaciones con vistas a la conclusión de un pacto o convenio en los términos previstos en el artículo 86 de esta Ley, desde la declaración formal al respecto y hasta la conclusión sin efecto, en su caso, de las referidas negociaciones, que se constatará mediante declaración formulada por la Administración o los interesados.*

*g) Cuando para la resolución del procedimiento sea indispensable la obtención de un previo pronunciamiento por parte de un órgano jurisdiccional, desde el momento en que se solicita, lo que habrá de comunicarse a los interesados, hasta que la Administración tenga constancia del mismo, lo que también deberá serles comunicado.*

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

*2. El transcurso del plazo máximo legal para resolver un procedimiento y notificar la resolución se suspenderá en los siguientes casos:*
*a) Cuando una Administración Pública requiera a otra para que anule o revise un acto que entienda que es ilegal y que constituya la base para el que la primera haya de dictar en el ámbito de sus competencias, en el supuesto al que se refiere el apartado 5 del artículo 39 de esta Ley, desde que se realiza el requerimiento hasta que se atienda o, en su caso, se resuelva el recurso interpuesto ante la jurisdicción contencioso administrativa. Deberá ser comunicado a los interesados tanto la realización del requerimiento, como su cumplimiento o, en su caso, la resolución del correspondiente recurso contencioso-administrativo.*
*b) Cuando el órgano competente para resolver decida realizar alguna actuación complementaria de las previstas en el artículo 87, desde el momento en que se notifique a los interesados el acuerdo motivado del inicio de las actuaciones hasta que se produzca su terminación.*
*c) Cuando los interesados promuevan la recusación en cualquier momento de la tramitación de un procedimiento, desde que ésta se plantee hasta que sea resuelta por el superior jerárquico del recusado.*

Horrela, izapidetzean zehar interesdunari errekerimenduak egin eta dagokion dokumentazioa jasotzen den bitartean, kanpo-auditoretzak kontuen azterketa egiten duen bitartean eta gerta litezkeen beste arrazoiengatik epeak luzatzen direnean, Legean aurreikusitakoaren arabera **ebazteko epea eten egin beharko da**.

HAMABIGARRENA.- Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan; SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

*1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*
*2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula*

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

*orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 4.570.531,22 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (3.262.690 euro) baino gehiago da; gainera, kontratuaren iraupena lau urte baino gehiagokoa denez, **Udaleko Osoko Bilkura da organo eskuduna.**

Gogorarazi behar da hemen, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak hau esaten duela 47.2 artikuluan:

> *2. Korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo* osoaren aldeko botoa behar da, jarraian agertzen *diren arloetan erabakiak hartzeko:*
> *j) Ondasunak zein zerbitzuak bost urte baino* gehiagorako emakidan ematea, beti ere, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten %20 gainditzen badu.

Tolosako Udalaren kasuan, aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 20a 6.525.380 euro dira; beraz, kontratuaren balio zenbatetsiak aipatutako atalase hori gainditzen ez duenez, Udaleko Osoko Bilkurak onartu beharko du **gehiengo soilarekin** eta ez gehiengo osoarekin.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

HAMAHIRUGARRENA.- Hamaikagarren eta hamabigarren zuzenbideko-oinarrietan adierazitakoa kontuan hartuz, ikusita hainbat izapidezko-egintza ebatzi beharko direla eta horien artean ebazteko epeen etetea, eta kontratazio-organoa plenoa denez, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak 22.4artikuluan xedatutakoaren arabera, egokia da udalbatzak alkate-lehendakariarengan eskuordetzea izapidezko-egintza guztien ebazpena eta bereziki, aipatutako etenak ebazteko ahalmena:

> *4. El Pleno puede delegar el ejercicio de sus atribuciones en el Alcalde y en la Junta de Gobierno Local, salvo las enunciadas en el apartado 2, párrafos a), b), c), d), e), f), g), h), i), l) y p), y en el apartado 3 de este artículo*

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren aldeko txostena ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2024ko azaroaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

<u>Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:</u>

**Aldeko botoak**: Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazábal eta Estitxu Kortejarena Ugarte.
**Abstentzioak:** Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Domínguez Landa eta José María Villanueva Tellería.

**Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen do Udallbatzaren Osoko bilkurari:**

**<u>IRIZPENA</u>**

**LEHENA.-** Onartzea Tolosako udal kirol instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuaren likidazio-espedienteari hasiera ematea, eta, hala badagokio, suntsiarazpen-akordioan BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresak bere gain hartutako betebeharrak ez betetzeagatik eta eragindako kalte-galerengatiko dagokion kalte-ordaina zehaztea.

**BIGARRENA.-** Ez onartzea BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresak aurkeztutako 2022., 2023. eta 2024. urteetako kontuak horiek ez baitute betetzen preskripzio tekniko partikularren pleguan, AGEM Consultores egindako azterketa ekonomikoan eta enpresa beraren eskaintzan xedatutakoa, hau da, ez dira Tolosako ustiapen-kontura mugatzen, enpresa osoari baizik. Halaber, gastuetan justifikatu gabeko igoerak egon dira enpresak aurretik igorritako dokumentazioarekin alderatuta.

**HIRUGARRENA.-** Aurrekoaren ondorioz eta, preskripzio tekniko partikularren pleguan xedatutakoarekin bat etorriz, beharrezkoak diren datuak ezagutu eta kontratuaren likidazioa egin ahal izateko, Betean Auditoría enpresak aurkeztutako 6.900 euroko (BEZa gabe) aurrekontua onartzea 2022ko irailaren 1etik 2024ko abuztuaren 31 bitarteko kontuen ikuskaritza egiteko. Auditoria hori, Udalak enkargatua, emakidadunaren kontura egin beharko da, eta, horrek ordaintzen ez badu, emakidadunak jarritako bermearen kontra egin beharko da.

**LAUGARRENA.-** Azalpen-zatiko bosgarren puntuan zehaztutakoaren arabera, Tolosako Udalak hartuko du bere gain gauzatzeke dauden inbertsioak gauzatzeko erantzukizuna, emakidadunak jarritako bermearen kontura.

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

**BOSGARRENA.-** Behin emakidadunak kontuak merkataritza-erregistroan gordailutu eta kontu horiek ikuskatu ondoren, Tolosako ustiapen-kontuari dagokionez, kontratua likidatu eta mozkin aldakorra banatuko da, halakorik badago.

**SEIGARRENA.-** Onartzea izapidetzean zehar interesdunari errekerimenduak egin eta dagokion dokumentazioa jasotzen den bitartean, kanpo-auditoretzak kontuen azterketa egiten duen bitartean eta gerta litezkeen beste arrazoiengatik epeak luzatzen direnean, Legean aurreikusitakoaren arabera ebazteko epea etetea.

**ZAZPIGARRENA.-** Onartzea 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak 22.4artikuluan xedatutakoaren arabera, udalbatzak alkate-lehendakariarengan eskuordetzea izapidezko-egintza guztien ebazpena eta bereziki, aipatutako etenak ebazteko ahalmena.

**ZORTZIGARRENA.-** Enpresa emakidadunari 10 egun baliodunеko epea ematea, dagokion jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, egoki deritzon dokumentuak eta justifikazioak alegatzeko egokitzat jotzen badu. Epea amaitu baino lehen interesdunak adierazten badu ez duela alegaziorik edo dokumentu edo justifikazio berririk aurkeztuko, izapidea gauzatutzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

**Abstentzioak:** Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du hasiera ematea Tolosako udal kirol instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuaren likidazio-espedienteari, eta hala badagokio, kalte-ordaina zehaztea suntsiarazpen-akordioan BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresak bere gain hartutako betebeharrak ez betetzeagatik eta eragindako kalte-galerengatik.

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

## 4. BEHIN BETIKO ONARTZEA «4. GUADALUPE-DONOSTIA ETORBIDEA» ESPARRUKO «4.2. AUTOBIAKO IRLA» AZPIESPARRUKO XEHETASUN-AZTERLANA.

Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko azaroaren 20ko irizpena.

**I K U S I R I K**

**LEHENA.-** Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024 martxoaren 26an, besteak beste, ondoren aipatzen den erabakia hartu du:

3. HASIERAKO ONESPENA EMATEA «GUADALUPE-DONOSTIA ETORBIDEA» ESPARRUKO «4.2. AUTOBIAKO IRLA» AZPIESPARRUKO XEHETASUN AZTERLANARI.

**BIGARRENA.-** Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2024/04/19an ( 76 zk.) eta udaletxeko taulan egon da 2024/04/19tik 2024/05/21ra. Bestalde, web orrian argitaratu zen 2024/04/19an eta 2024/04/23an Tolosaldeko Ataria, Berria eta Diario Vascon. Informazio publikoko epearen amaiera 2024/05/22an izan da eta ez da iradokizun/erreklamaziorik jaso.

**HIRUGARRENA.-** Honako txosten sektorialak jaso direla:

- 2024ko apirilaren 18an GFAko Bide Azpiegituretako ALDEKO txostena.
- 2024ko ekainaren 11ean eta urriaren 14an Gipuzkoako Urak/Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren ALDEKO txostena
- 2024ko UR Agentzia eta Konfederazio Hidrografikoko ALDEKO txostenak

**LAUGARRENA.-** Erlazionatutako espedienteetako aurrekariak:

- **B51/2012/0001 espedientea.** Tolosako HAPOko “4.2. Isla Autobia” azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Testu Bategina. Behin betiko onespena 2012/09/25.
- **B51/2012/0011 espedientea.** “4.2. Isla Autobia” egikaritze unitateko Birpartzelazio Proiektua. Behin betiko onespena 2012/10/31.
- **B51/2012/0014 espedientea.** “4.2. Isla Autobia” azpiesparruko Urbanizazio Proiektuaren Testu Bategina. Behin betiko onespena 2013/12/20.
- **B51/2011/0005 espedientea.** “4.2. Isla Autobia” azpiesparruko Kontzertazio Hitzarmena. Behin betiko onespena 2011/04/19

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

**K O N T U A N   H A R T U R I K**

**LEHENA.-** 2024ko azaroaren 15ean, hirigintza departamenduko buru honek egindako txosten teknikoan (JM24_076) jasotakoa:

- **TXOSTENAREN HELBURUA:**

Txosten hau idazten da 2024ko martxoaren 21ean aurkeztutako xehetasun azterlana eta honen espedientea aztertzeko eta hala badagokio behin betikoz onartzeko.

- **XEHETASUN AZTERLANAREN HELBURUA:**

Aurkeztutako dokumentuaren arabera, Xehetasun Azterlanaren helburua da Tolosako "Isla Autovía" 4.2 azpieremuko 5. lurzatiak bete behar dituen eraikuntza-baldintzak egokitzea.

Antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru-motatan osatzeko edo egokitzeko dira xehetasun-azterketak. Plangintzan aurreikusita ez badago, xehetasun-azterketak berak erakutsi behar du zehaztapen horiek osatu edo egokitzeko beharra dagoela edo hala komeni dela Lurzorua eta Hirigintzako 2/2006 Legeko 73.1 artikuluaren arabera.

Lege bereko 73.2 artikuluak zehazten du xehetasun-azterketen zehaztepenak zertara mugatuko diren:

*“2.– Gauza hauetara mugatuko dira xehetasun-azterketak:*
*a) Antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokadurak adieraztea, zuzentzea edo osatzea.*

*b) Bolumenak dena delako plangintzan aurreikusitakoaren arabera antolatzea. Bolumenen berrantolaketa tipologikoaren edo morfologikoaren ondorioz hala egiteko beharra badago edo hala egitea komeni bada, bide berriak egiteko edo zuzkidura publiko berriak egiteko lurzoruaren kalifikazioa ere jaso daiteke antolaketa horretan.*

*c) Urbanizatze-lanen, eraikuntzen, instalazioen eta gainerako obra eta hiri-elementu osagarrien alderdi eta ezaugarri estetiko eta konpositibo batzuk arautzea. Ezaugarri horiek antolamendu xehatuan egongo dira jasota.”*

**Kasu honetan, antolamendu xehatuaren lerrokadurak eta sestrak egokitzen dira, 73.2.a puntuarekin bat etorriz. Bestalde, 5. lursailaren bolumetria birkonfiguratzen da eta zuzkidura publikoak doitzen dira, 73.2.b puntuaren arabera.**

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

Hala ere, Lurzorua eta Hirigintzako 2/2006 Legeko 73.3 artikuluaren arabera:

*“3.– Xehetasun-azterketek ezingo dute, inola ere, kasuan kasuko plangintzak azterlan horiek egiteko ezarritako aurreikuspenak urratu edo horiei kasurik ez egin. Halaber, ezingo dute lurzoruari izendatutako erabilera aldatu, eraikigarritasuna handitu eta plangintzak dakartzan bideak edo zuzkidura publikoak ezabatu edo gutxiarazi, aurreko paragrafoko b) letran xedaturikoari ezer kendu gabe”.*

Beraz, hurrengo puntuetan aztertuko da aurkeztutako proposamenak indarreko plangintzak (Tolosako HAPOk eta azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak) ezarritako aurreikuspenak errespetatzen ote dituen.

- **INDARREAN DAGOEN ANTOLAMENDUA BETETZEA; EGITURAZKO ANTOLAMENDUA ETA XEHATUA:**

Tolosako Plan Orokorraren arabera, lursail hori “4 Guadalupe-Donostia etorbidea” izeneko hirigintza esparruko 4.2. Isla Autobia azpiesparruan dago. Azpiesparru hau hiri-lurzoru bezala sailkatuta dago eta B.10 Industria Erabilerako Zona bezala kalifikatua dago.

Xehetasun Azterlanak Tolosako HAPOko “4.2. Isla Autobia” azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Testu Bateginaren araberako 5. lursailari eta honen inguruari eragiten dio.

“4.2. Isla Autobia” egikaritze unitateko Birpartzelazio Proiektuaren kontuan izan behar da. Bertan zehazten baita ondoriozko lursailaren deskribapena, azalerak eta eraikigarritasuna ere.

Hauxe da plan horretan zehazten den antolamendu xehatua eta baita birpartzelazio proiektuko ondoriozko lursailen planoa ere:




ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9



indarrean dagoen antolamendu xehatua



proposatutako antolamendu xehatua

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9




Proposatutako hirigintza-parametroen azterketa hauxe da

| | | TOLOSAKO HAPO (azpiesparrua) | HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA (azpiesparrua) | BIRPARTZELAZIO PROIEKTUA (azpiesparrua) | XEHETASUN AZTERLANA (eragindako eremua) | BETETZEN DU (BAI/EZ) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **AZPIESPARRUAREN EDO ERAGINDAKO EREMUAREN AZALERA (m2)** | | 15.712 | 16.267 eremuz kanpoko zati bat barneratzen du | 16.267 14.085,84 (exekuzio unitatea) | 3.951 (lursaila eta ingurua) | ez du eragiten |
| **ERAIKIGARRITASUNA (m2(s))** | **AZPIESPARRUKOA SESTRA GAINEAN** | 5.046 | 5.046 | 5.046 | **-** | **BAI** |
| | **AZPIESPARRUKOA SESTRAPEAN** | 5.046 | 5.046 | 5.046 | **-** | **BAI** |
| | **5. LURSAILA SESTRAGAINEAN** | - | 2.838 | 2.838 | 2.838 | **BAI** |
| | **5. LURSAILA SESTRAPEAN** | - | 2.838 | 2.838 | 2.838 | **BAI** |



ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **KALIFIKAZIO GLOBALA (m2)** | | B.10 INDUSTRIA ERABILERAKO ZONA | B.10 INDUSTRIA ERABILERAKO ZONA | | - | | - | | **BAI** |
| **HIRIGINTZA-SAILAKAPENA** | | Hiri-lurzorua | Hiri-lurzorua | | - | | - | | **BAI** |
| **HIRI-LURZORUAREN KATEGORIZAZIOA** | | Hiri-lurzoru Finkatugabea urbanizazio gabeziagatik | Hiri-lurzoru Finkatugabea urbanizazio gabeziagatik | | - | | - | | **BAI** |
| **KALIFIKAZIO XEHATUA (m2)** | **XEHETASUN AZTERLANAREN EREMUA** | - | b.10 | 2.610,59 | b.10 | 2.610,59 | b.10 | 2.529 | **BAI egokitu dezake** |
| | | | oinezkoak | 279,51 | oinezkoak | 279,51 | oinezkoak | 435 | |
| | | | Ibilg. | 802,18 | Ibilg. | 802,18 | Ibilg. | 626 | |
| | | | berdeguneak | 259,63 | berdeguneak | 259,63 | berdeguneak | 361 | |
| | **5. LURSAILA azalera** | - | 2.610,59 | | 2.610,59 | | 2.529 | | **BAI egokitu dezake** |
| | **5. LURSAILA erabilerak** | | b.10. industria lursail eraikigarria | | b.10. industria lursail eraikigarria | | b.10. industria lursail eraikigarria sotoa: aparkalekua erdisotoa+bs+1s: 3. sektorekoa | | **BAI** |
| **ERAIKINAREN GEHIENEKO OKUPAZIOA (m2)** | | - | 1.828,46 | | - | | 1.934 (sotoan) | | **BAI egokitu dezake** |
| **ERAIKINAREN PROFILA** | | II+BS+I (altuera 12 m gehienez) | II+BS+I (altuera 12 m gehienez) | | II+BS+I | | **II+II** (altuera 13 m gehienez) | | **BAI egokitu dezake** |

## EGITURAZKO ZEHAZTAPENAK:

**Egiturazko zehaztapenak betetzen ditu aurkeztutako proposamenak. Sestragaineko eta sestrapeko eraikigarritasuna konputatzerakoan kontuan hartu dira Tolosako HAPOko Araudi Orokorreko 52, 54 eta 53.C artikuluak. Horregatik erdisotoaren zati bat sestragaineko solairutzat hartzen da eta beste bat sestragainekotzat. <u>Eraikuntza proiektuan eta obran derrigorrez bete beharko da</u>**

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

**zehaztutako profila (sotoa+erdisoto+II) eta sestrapeko eta sestra gaineko gehienezko eraikigarritasuna.**

***52. artikulua. Askotariko terminoak eta kontzeptuak eta horien definizioa***
*(…)*
*— Sotoko solairua: Bertara sartzeko zatian izan ezik, sestrapean kokatuta dagoen solairua, nahiz lurperatua nahiz erdilurperatua, kasu honetan beti 1,20 m-tik behera, espazio eraikigabe publiko zein pribatu perimetralaren sestratik neurtuta.*
***— Erdisotoko solairua: Ez sototzat ez behe-solairutzat hartzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen ez dituen zati batean lurperatutako solairua. Solairu bat erdilurperatutzat hartuko da bere fatxadetako bat edo gehiago sestra gainean azaleratzen denean 1,20 metrotik gorako altueran.***
*— Behe-solairua: Oso-osorik sestra gainean edo bere fatxada guztietan sestraren azpitik 1,20 metro baino gutxiagora dagoen eraikuntzaren solairua. Lurraren gainean zuzenean edo sotoaren gainean egon daiteke.*

***54. artikulua. Eraikuntzaren solairu kopurua zehazteko irizpideak.***
*1. Oro har, eta eraikigarritasuna zehazteko tratamenduaren eta erabilera batzuetara zein besteetara zuzentzearen kalterik gabe, sestra gaineko solairutzat jotzen dira eraikuntzaren behegaina, behe-solairua eta goiko solairuak, eta sestrapeko solairutzat sotoak.*
*Bestalde, ezaugarriak eta baldintzatzaileak kontuan harturik,* ***erdisotoak nahiz sestra gaineko solairutzat nahiz sestrapeko solairutzat hartu ahal izango dira.*** *Horri dagokionez, Plan Orokor honen arau partikularretan eta berau garatzeko sustatutako plangintzan ezarritakoari jarraituko zaio.*

## ERABILERAK:

**Proposatutako erabilerak bateragarriak dira b.10 industria lursailentzat HAPOk definitzen dituenekin (9 eta 13. Artikuluen arabera). 2.000 m²(s)-tik gorako azalera duenez 5. Kategoriako hirugarren sektoreko erabilera proposatzen da, eta azpiesparru horri dagokion Plan Berezian baimentzen dira kategoria horretako erabilera komertzialak eta hotel erabilerak.**

***9. artikulua. Hirigintza-erabileren edukia.***
*2.2. Hirugarren sektoreko erabilerak.*
*A. Honako irabazizko jarduera hauek hartuko dira halakotzat:*
***— Hotel-erabilera.***
***— Merkataritza-erabilera.***
*— Bulego-erabilera.*
*— Jolas-erabilera.*
*— Osasun-erabilera.*
*— Laguntza-erabilera.*
*— Erabilera soziokulturala.*
*— Irakaskuntza-erabilera.*
*— Kirol-erabilera.*
*— Turismo-kanpalekuen erabilera*
*(…)*
*C. Merkataritza-erabilerek honakoak bilduko dituzte:*

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

*— Jendaurrean mota guztietako artikulu eta produktuak saltzea, handizka zein txikizka.*
*(…)*
***e) 5. kategoria: 2.000 m²(s)-tik gorako azalera erabiltzen duten merkataritza-jarduerak.***
***Plan Orokor honetan bereizitako jarduera ekonomikoetara zuzendutako zona globaletan («B.10» eta «B.20» tipologiako zonak) ezartzeko baimena eta/edo debekua zona horien hirigintza-erregimena arautzen duten baldintzetan emango da.***
*(…)*
*Jarduera horietarako beharrezkoak diren sarbide, aparkaleku, maniobra eta zamalanetarako espazioek jarduerak garatzen diren eraikuntza eta espazioen barruan kokatuta egon beharko dute.*
*Hiri-plangintzak, udal-ordenantzek edo udalak, jarduera hauei dagokien udal-lizentzia ematerakoan, aparkaleku-zuzkidurari buruzko berariazko baldintzak betetzearen baldintzapean jar dezakete jardueren ezarpena.*

**PLAN BEREZIAK BAIMENDUTAKO ERABILERAK**

***"SECCION 2.1.3.- CONDICIONES DE USO***
***Artículo 25.- Otros Usos autorizados***
****Usos comerciales:***
***Se autoriza la implantación de usos comerciales en esas parcelas, hasta el máximo de los de 5.ª categoría, incluida****. En este caso específico y dada la convalidación que el Plan General efectúa de la Modificación de Normas Subsidiarias aprobada el 22-7-2003 se autoriza también el uso comercial de 5ª categoría toda vez que no se establecía limitaciones al uso comercial.*

**** Usos hoteleros y hosteleros, con carácter autónomo, siempre que no generen una afluencia de público externo significativa."***

## JABARI PUBLIKOA ETA PRIBATUAREN BANAKETA:

**Antolamendu xehatuari dagokionez, zuzkidura publikoak doitzen dira eta horren ondorioz lursail pribatuaren azalera gutxitu egiten da eta jabari publikoko azalera gehitu (Lursailaren azalera lehen 2.610,59m2koa zen eta orain 2.529m2koa eta zuzkidura publikoen azalera lehen 1.341,32 m2 eta orain 1.422m2). Doitze hori egoki ikusten da jabari publikoko azalera ez delako gutxitzen, gehitu baizik. Dena den, 2012ko urriaren 31ean behin betiko onartu zen Birpartzelazio Proiektuaren aldaketa izapidetu beharko da antolamendu xehatuaren aldaketa hauek egokitzeko.**

- **URBANIZAZIO, ERAIKUNTZA, ETA INGURUMENA, PAISAIA ETA NATURA BABESTEKO UDAL ORDENANTZAK BETETZEA:**

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

Eraikuntza proiektuan eta obran bete beharko dira, besteak beste, Urbanizazio, eraikuntza, eta ingurumena, paisaia eta natura babesteko udal ordenantzetako baldintza hauek:

1. Aparkalekuei dagokienez, udal ordenantzetako 92.2 eta 98. artikuluen arabera ibilgailuentzako aparkaleku-plaza bat gaitu beharko da aurreikusitako 100 m²(s)-ko erabilera edo jarduera nagusientzat; eta, 99. artikuluaren arabera, bizikletentzako aparkaleku plaza 1 ere aurreikusi beharko da 100 m²(s)-ko.
2. Zamalanetarako espazioei dagokienez, 91. Artikulua bete beharko da.

- **PLANAREN OHIKO INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA:**

46/2020 Dekretuak, martxoaren 24koak, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituenak, bere 6.3 artikuluan honakoa jasotzen du lurralde- eta hirigintza-plangintza ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende jartzearen inguruan:

*"2.– Ez dira ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende jarri behar ez xehetasun-azterlanak, ez eraikingintza- edo hirigintza-ordenantzak, ez arkitektura- edo hirigintza-ondarea babesteko katalogoak, ez baitira plantzat hartzen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arabera. Gainera, prozedura hori ez da beharrezkoa, halakoak garrantzi txikikoak baitira eta ez baitute batere gaitasun berritzailerik, hirigintza-antolamenduaren ikuspegitik.*

**Beraz, Xehetasun Azterlan hau ez dago ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende.**

- **TXOSTEN SEKTORIALAK:**

Xehetasun azterlanaren eremua Oria ibaiaren eta GFAko eskumeneko errepide sarearen zaintza eremuetan dago. Jaso dira Ur agentzia eta Kantauriko konfederazioko eta GFAko Errepide Saileko aldeko txostenak; baita Gipuzkoako Urak-en aldeko txostena ere. Baimen horietan jasotako baldintzak bete beharko dira

## 3.- ONDORIOA:

**Beraz, kontuan izanda xehetasun azterlanak antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokadurak adierazi, zuzendu edo osatu ditzakeela eta bolumenen berrantolaketa egin dezakela (ikusi 2/2006 lurzoruaren legeko 73. artikulua), eta proposatutako aldaketak justifikatuta daudela, ez da eragozpenik ikusten xehetasun azterlanari behin betiko onespena eman ahal izateko honakoak kontuan izanda:**

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

- Aurretik aipatutako txosten sektorialetan jasotako baldintzak bete beharko dira uneoro.

- 15 eguneko epean 2024ko martxoaren 21ean aurkeztutako Xehetasun Azterlana eta 2024ko irailaren 12an aurkeztutako dokumentazio osagarria bateratzen dituen Xehetasun Azterlanaren Testu Bategina aurkeztu beharko da.

- Eraikuntza proiektuan eta obran derrigorrez bete beharko da zehaztutako profila (sotoa+erdisotoa+II) eta sestrapeko eta sestra gaineko gehieneko eraikigarritasuna ezingo da inolaz ere gainditu.

- 2012ko urriaren 31ean behin betiko onartu zen Birpartzelazio Proiektuaren aldaketa izapidetu beharko da antolamendu xehatuaren aldaketak egokitzeko.

- Eraikuntza proiektuan eta obran bete beharko dira, besteak beste, Urbanizazio, eraikuntza, eta ingurumena, paisaia eta natura babesteko udal ordenantzetako 91, 92, 98 eta 99 artikuluak aparkalekuei eta zamalanetako espazioei dagokienez.

**BIGARRENA.-** 2024ko martxoaren 21ean, hirigintzako Tekniko Juridikoak idatzitako txosten juridikoan (MAU24041) jasotakoa:

<< (…)

***ZUZENBIDEZKO OINARRIAK***

***I.*** *Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73. artikuluan araututakoaren arabera, xehetasun-azterlanak antolamendu xehatuaren zehaztapenak osatzeko edo egokitzeko dira. Plangintzan aurreikusita ez badago, xehetasun azterlanak berak baieztatu behar du zehaztapen horiek osatu edo egokitu beharra dagoela edo hala komeni dela. Gauza hauetara mugatuko dira xehetasun azterlanak:*

a. *Antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokadurak adieraztea, zuzentzea edo osatzea.*
b. *Bolumenak dena delako plangintzan aurreikusitakoaren arabera antolatzea. Bolumenen berrantolaketa tipologikoaren edo morfologikoaren ondorioz hala egin beharra badago edo hala egitea komeni bada, bide berriak egiteko edo zuzkidura publiko berriak egiteko lurzoruaren kalifikazioa ere jaso daiteke antolaketa horretan.*
c. *Urbanizatze-lanen, eraikuntzen, instalazioen eta gainerako obra eta hiri-elementu osagarrien alderdi eta ezaugarri estetiko eta konpositibo batzuk arautzea. Ezaugarri horiek antolamendu xehatuan egongo dira jasota.*

***II.*** *Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dute:*

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

- *Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73., 74., 85. eta 98. artikuluak.*
- *Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 4., 7., 33. eta 37. artikuluak.*
- *Lurzoruari buruzko Legearen testu bateginaren 11. artikulua, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.*
- *Ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatzeko eta aplikatzeko Plangintzako Erregelamenduaren 65., 66., 120., 121. eta 140. artikuluak.*
- *Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j), 22.2.c) eta 70.2 artikuluak.*
- *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikulua.*

***III.*** *Xehetasun azterlanek ezingo dute, inola ere, kasuan kasuko plangintzak azterlan horiek egiteko ezarritako aurreikuspenik urratu, edo horiei kasurik ez egin. Halaber, ezingo dute lurzoruari izendatutako erabilera aldatu, eraikigarritasuna handitu eta plangintzak dakartzan bideak edo zuzkidura publikoak ezabatu edo gutxiarazi, legearen 73.2.b) artikuluan xedaturikoari ezer kendu gabe.*

***IV.*** *Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 74. artikuluarekin bat etorriz, xehetasun-azterlanek honako agiri hauek izango dituzte:*

- *Memoria bat, bi gauza justifikatzeko: alde batetik, 73. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako legezko mugak errespetatu egiten direla, eta bestetik, bere kasuan, plan orokorraren edo garapen-plangintzako zehaztapenak osatu edo egokitu egin behar direla.*
- *Informazio-planoak.*
- *Antolamenduaren planoak.*

***V.*** *Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 6.2 artikuluarekin bat etorriz, xehetasun-azterketak, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arabera planak ez direnez, ez dira ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende egongo.*

***VI.*** *Xehetasun-azterlana onartzeko prozesu osoan, publizitate aktiboaren eskakizunak bete beharko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.4 artikuluan eta gardentasunaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.*

***VII.*** *Xehetasun azterlana onartzeko jarraitu beharreko prozedura honako hau da:*

***A.*** *Xehetasun-azterlana izapidetzen hasi ondoren, eta ematen den txosten teknikoan xedatutakoaren arabera, Alkateari dagokio xehetasun-azterlana* ***hasieran onartzea****, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikuluan xedatutakoaren arabera; hiru hilabeteko epean. Tolosako Udalari dagokionez, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetza Dekretuaren bidez.*

***B.*** *Xehetasun-azterlana hasieran onesteak berez ekarriko du* ***lizentzien emakida etetea****, gehienez urtebeterako, plangintzaren xede den lurraldeko eremuetan,*

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

*baldin eta eremu horien zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea badakarte.*

*Etete horren ondorioak behin betiko onespenarekin azkenduko dira, eta, edozein kasutan, hasierako onespenetik urtebete igarotakoan.*

***C.** Hasierako onespenaren ondoren, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98.2 artikuluarekin bat etorriz, Xehetasun-Azterlan proiektua **jendaurrean jarriko da hogei egunez**, aztertu eta bidezko alegazioak aurkeztu ahal izateko, udaletxeko iragarki-taulan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta hedadura handieneko egunkari batean edo batzuetan iragarkia argitaratuz.*

*Era berean, interesdunen eskura egongo da Tolosako Udalaren egoitza elektronikoan.*

*Era berean, **zuzenean ukitutako jabeei** eta gainerako interesdunei jakinaraziko zaie, xehetasun-azterketaren lurralde-eremuan sartzen badira.*

***D.** Jendaurrean jartzeko aldia amaituta, alegazioak aurkeztuta eta horiei buruzko txostena eginda, jendaurreko informazioaren emaitza ikusita, Udalbatzak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98.3 artikuluarekin eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikuluarekin bat etorriz, Xehetasun Azterlana **behin betiko onetsiko** du, bidezko diren aldaketak eginda.*

*Xehetasun-azterlana behin betiko onesteko epea hiru hilabetekoa izango da, hasierako onespenetik zenbatzen hasita; epe hori igarotakoan, ezetsitzat joko da administrazio-isiltasunez.*

***E.** Xehetasun Azterlana behin betiko onartu ondoren, **interesdunei jakinaraziko zaie**, eta behin betiko onespenaren erabakia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluarekin bat etorriz.*

*Era berean, hirigintzaren arloan **eskumena duen foru-organoari jakinaraziko zaio**, behin betiko onespenaren erabakia hartu eta hamar eguneko epean, ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatzeko eta aplikatzeko Plangintzako Erregelamenduaren 140.5 artikuluarekin bat etorriz.*

## *AZTERKETA JURIDIKOA*

*Aplikatu beharreko legeria ikusita, adierazi daiteke 2024ko martxoaren 21ean aurkeztutako **5. Partzela eta «4.2 Autobiako irla» azpiesparruaren inguruneari buruzko Xehetasun-Azterlana**ren proiektua egokitzen dela legerian agindutakora.*

*Hala ere, ikusirik hirigintza buruak 2024ko martxoaren 21ean egindako txosten teknikoan (JM24_018) jasotakoa, kontuan izan beharko dira bertan ezarritakoak.*

## *ONDORIOAK*

*Kontuan izanik aurrekariak, txosten eta aplikatu beharreko lege-xedapenak, hauxe da proposatzen dudana:*

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

***LEHENA.-** «4. Guadalupe - Donostia etorbidea» esparruko, «B.10 Industria Erabilerako Zona», «4.2 Autobiako irla» azpiesparruko Xehetasun-Azterlan proiektuari, 2024ko martxoaren 21ean aurkeztutako bertsioa, **hasierako onespena ematea**.*

*Beti ere, kontuan izanik hirigintza buruak 2024ko martxoaren 21ean egindako txosten teknikoan (JM24_018) jasotakoa.*

***BIGARRENA.-** Xehetasun-azterlanaren proiektua jendaurrean jartzea hogei egunez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, Diario Vasco, Berria eta Tolosaldeko Atarian eta udaletxeko iragarki-oholean iragarkia jarriz.*

*Era berean, interesdunen eskura egongo da Tolosako Udalaren egoitza elektronikoan.*

*Jendaurreko erakustaldian, espedientea aztertu nahi duen edonoren esku geratuko da, bidezko alegazioak aurkez daitezen.*

***HIRUGARRENA.-** Zuzenean ukitutako jabeei eta gainerako interesdunei, xehetasun-azterketaren lurralde-eremuan daudenei, jakinaraztea. >>*

**Tolosako udaleko Lurraldea Batzordeak, 2024ko azaroaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:**

**Aldeko botoak:** Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitzol Garzia Azurmendi, Aitor Agirresarobe Murgi, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## I R I Z P E N A

**LEHENA.-** BEHIN BETIKO onespena ematea «4. Guadalupe - Donostia etorbidea» esparruko, «B.10 Industria Erabilerako Zona», «4.2 Autobiako irla» azpiesparruko Xehetasun-Azterlan proiektuari, 2024ko martxoaren 21ean aurkeztutako bertsioa eta 2024ko irailaren 12an aurkeztutako dokumentazio osagarriari, honako baldintzak kontuan izanda:

- 15 eguneko epean 2024ko martxoaren 21ean aurkeztutako Xehetasun Azterlana eta 2024ko irailaren 12an aurkeztutako dokumentazio osagarria bateratzen dituen Xehetasun Azterlanaren Testu Bategina aurkeztu beharko da.

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

- Espedienteko txosten sektorialetan jasotako baldintzak bete beharko dira uneoro (Ur agentzia eta Kantauriko konfederazio Hidrografikokoak, GFAko Errepide Sailekoak eta Gipuzkoako Uraken txostenetan jasotakoak).

**BIGARRENA.-** Ohartaraztea honakoak ere kontuan izan beharko direla azpiesparru honetako ondorengo espedienteak izapidetzerakoan:

- 2012ko urriaren 31ean behin betiko onartu zen Birpartzelazio Proiektuaren aldaketa izapidetu beharko da antolamendu xehatuaren aldaketak egokitzeko.

- Eraikuntza proiektuan eta obran derrigorrez bete beharko da zehaztutako profila (sotoa+erdisotoa+II) eta sestrapeko eta sestra gaineko gehieneko eraikigarritasuna ezingo da inolaz ere gainditu.

- Eraikuntza proiektuan eta obran bete beharko dira, besteak beste, Urbanizazio, eraikuntza, eta ingurumena, paisaia eta natura babesteko udal ordenantzetako 91, 92, 98 eta 99 artikuluak aparkalekuei eta zamalanetako espazioei dagokienez.

**HIRUGARRENA.-** Behin betiko onartutako Xehetasun Azterlana Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistrora bidaltzea artxibatu dezan.

**LAUGARRENA.-** Behin betiko onarpenaren iragarkia Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta dagokion lurralde historikoan zabalkunde handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea. Eta baita udaletxeko iragarki-oholean eta Udalaren web orrian ere.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, behin betiko onespena eman dio «4. Guadalupe-Donostia etorbidea» esparruko «4.2. Autobiako irla» azpiesparruko xehetasun-azterlanari.

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

5. **ONARTZEA ONDASUNA ADOSTASUNEZ ESKURATZEKO PREZIOA.**

Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko azaroaren 20ko irizpena.

**I K U S I R I K**

- 2022/02/07an Gipuzkoako Ur konsortzioak Tolosako Udalari Aldabako saneamenduko proiektua garatu ahal izateko beharrezko lurrak eskuratzeko eskaera egin zion.

- 2022/03/15an Gipuzkoako Ur konsortzioak udalari Aldabako saneamenduko proiektuari sarrera eman zion. Udalak proiektu hau osatzeko Ur konsortzioari, erasandako lursail eta jabeen zerrenda eskatu zion.

- 2022/04/11an Gipuzkoako Ur konsortzioak Aldabako saneamenduko proiektuari dagokion erasandako lursail eta jabeen zerrenda igorri zion udalari.

- 2022/08/04an 2022/2151 Alkate dekretuz proiektua onartu zen eta erasandako lursail eta jabeen zerrenda jendaurrean jarri zen.

- 2022/08/19tik 2022/09/16a bitarte zerrenda jendaurrean egon zen eta bitarte horretan ez zen alegaziorik egon.

- 2022/09/02an GFAko Lurren kudeaketa eta Ondare saileko zerbitzuburua den Amaia Miner Canflancak mezu bat bidali zuen ondorengoa adierazten:

1- Baieztatu zuela Bide Azpiegituretako departamentuarekin ondasun eta eskubideen zerrendan adierazitako lur zatia bere jabetzakoa den GI-3173 errepideari dagokiola.

2- Jabari publikoa denez ezin da desjabetu eta ezin du izan behin behineko okupazio arrunta ere. Ondorioz Hasierako Aktetan argituko dutela hori eta adieraziko dutela obrak egiten hasi aurretik berariazko baimena eman behar duela Bide Azpiegiturako departamentuak.

- 2022/09/08an Tolosako udalak Aymat S.L. aholkularitza teknikoa kontratatu zuen desjabetzen tramitazioan laguntza teknikoa emateko. Enpresa honetako teknikariak lanean hasi zirenean konturatu ziren katastroak akatsak zituela eta beraz erasandako lursail eta jabeen zerrenda aldatu beharra zegoela adierazi zuten.

- 2022/10/06an udalean sarrera emandako idatzi baten bitartez (2022-10.507) Amaia Arrayet Garmendia eta Julen Egia Truchuelok proiektuko 8. lursaila bere titularitatekoa

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

zela adierazi zuen. Idatziarekin batera lursailaren eskriturak eta ohar soila eransten ditu eta proiektuari alegazioak aurkezteari uko egiten dio.

- 2022/10/06an Inmaculada Lasa Ibargurenek, bere izenean eta Tirso Otamendi Jauregiren izenean idatzi bat sartu zuen udalean (2022-10.508). Idatzi honen bidez alde batetik proiektuko 9. lursaila beraien titularitatekoa dela eta bestetik proiektuari alegazioak aurkezteari uko egiten diotela adierazten dute.

- 2022/10/06an Juan Carlos Arozena Urangak idatzi bat sartu zuen (2022-10.527) udalean adierazten bera eta bere anai-arrebak erasandako lursailaren jabekide moduan jakinarazpenak jaso dituztela, proiektuarekin ados daudela eta alegazioak aurkezteari uko egingo diotela. Juan Carlos Arozenak ere eskriturak bidali ditu espedientean sartzeko.

- 2022/10/06an Mª Asunción Martinez Oconek sinatutako eta posta elektronikoz helaraziko beste idatzi batez ondorengoa adierazten du: bera ez dela Tolosako Aldaba auzoko saneamendu proiektuko 5. eta 9. lursailetako jabea eta eskatzen du gaiari buruz jakinarazpen gehiago ez jasotzea.

- 2022/12/13an Ur konsortzioak, aurreko aldaketak onartuta, proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda eguneratua bidali zuen, 2022-10000006774 erregistro zenbakia.

- 2022/12/28an Hirigintzako AOT-ak txostena egin zuen jendaurreko epean eta ondoren sartu ziren alegazioak jasoaz.

- 2023/01/04an Udal idazkariak, hirigintzako AOTak egindako txostenean oinarriturik, ziurtagiria egin zuen.

- 2023/01/09an ingurumen eta landa eremuko teknikariak txostena (IM202200113) egin zuen.

- 2023/01/11n zinegotzi delegatuaren dekretua (2023/52zk) eman zen, besteak beste behin betiko onespena emanez.

- 2023/10/02an Gipuzkoako Ur Kontsortzioak desjabetzeen prozesua lehenbailen amaitzeko eskaera egin zuen SIR bidez 2023-10000005520 erregistro zenbakiarekin.

- 2023/10/02an Aymat S.L. enpresak, emailez, behin betiko onarpen zerrenda eta planoak bidali zituen zuzenduta.

-2023/11/16an Ingurumen eta Landa eremuko teknikariak Gipuzkoako Ur Konsortzioak aurkeztutako Tolosako Aldaba auzorako saneamendu proiektua eta honek atxikitutako

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

ondasun eta eskubideen zerrenda onartzeko proposamenaren behin betiko onarpeneko txostena egin zuen.

- 2023/11/17an Hirigintzako AOT-ak txostena egin zuen.

- Udalbatzak, 2023/12/01ean, Ohiko Osoko Bilkuran aho batez onartu zuen, Tolosako Aldaba auzorako Gipuzkoako Ur Kontsortzioak aurkeztutako proiektuak eragindako lursailak hirigintza-arrazoiengatik nahitaez desjabetzeko prozedura presazkotzat deklaratzea eta eragindako lursail eta jabeen zerrenda behin betikoz onestea.

- 2024/03/07an Aymat S.L. enpresak, emailez, “elkarren arteko adostasunerako” finken balorazioak bidali zituen.

-2024/04/12an Ingurumen eta Landa eremuko teknikariak txostena (AO20240027) egin zuen: Gipuzkoako Ur Kontsortzioak aurkeztutako Tolosako Aldaba Auzorako saneamendu proiektua eta honek atxikitutako ondasun eta eskubideen balorazio proposamena.

-2024/07/09an Ingurumen eta Landa eremuko teknikariak txostena (IOG2024021) egin zuen Tolosako Udaleko Ingurumen eta Landa eremuko teknikariak 2024/04/12an egindako txosten teknikoan (AO20240027) atzemandako akatsak zuzenduz.

-2024/07/24an balio justua elkarren arteko adostasunez finkatzeko aktak sinatu ziren.

-2024/10/18an Hirigintzako AOT-ak txostena egin zuen.

-2024/11/13an Kontuhartzailetzak fiskalizazio txostena egin zuen.

## K O N T U A N   H A R T U R I K

**LEHENA.-** Behean izenpetzen duen Ingurumen eta Landa eremuko Teknikariak honek txostena egin du 2024/07/09an eta honela dio:

‹‹LEHENA.- Tolosako Udaleko Ingurumen eta Landa eremuko teknikariak 2024/04/12an egindako txosten teknikoan (AO20240027) akatsa antzeman dela, txosten honen helburua da akats horiek konpontzea. Zehazki, honakoak dira atzemandako akatsak:

**Lehenengo akatsa**: 08-1 FINKA

Honakoa jartzen duen tokian,

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

| | | |
|---|---|---|
| **08-1** | Julen Egia Truchuelo | 204,67 € (zortasuna) |
| | Amaia Arrayet Garmendia | 204,67 € (zortasuna) |
| | Juana Urdampilleta Zubeldia | 204,67 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **682,23 €** (zortasuna) |

Honela izan behar luke,

| | | |
|---|---|---|
| **08-01** | Julen Egia Truchuelo | 204,67€ (zortasuna) |
| | Amaia Arrayet Garmendia | 204,67€ (zortasuna) |
| | Juana Urdampilleta Zubeldia | 272,89€ (zortasuna) |
| | **Guztira** | **682,23€ (zortasuna)** |

**Bigarren akatsa**: 09 FINKA

Honakoa jartzen duen tokian,

| | | |
|---|---|---|
| **09** | Tirso Otamendi Jauregi | 7.882,59 € (desjabetza + zortasuna) |
| | Inmaculada Ibarguren Lasa | 4.882,58 € (desjabetza + zortasuna) |
| | **Guztira** | **15.765,17 €** (desjabetza + zortasuna) |

Honela izan behar luke,

| | | |
|---|---|---|
| **09** | Tirso Otamendi Jauregi | 7.882,59 (desjabetza + zortasuna) |
| | Inmaculada Ibarguren Lasa | 7.882,58 (desjabetza + zortasuna) |
| | **Guztira** | **15.765,17€** (desjabetza + zortasuna) |

**Hirugarren akatsa**: BAKOITZARI ORDAINTZEKO TAULA

Honakoa jartzen duen tokian,

| Proiektuko lurzatia | Jabea | Ordaintzekoa |
|---|---|---|
| **03** | Jose Ramon Emanalde Tolosa | **311,08 €** (zortasuna) |
| **04** | Mª Cruz Uranga Alberdi | 2,47 € (zortasuna) |
| | Ana Mª Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | Mª Carmen Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | Juan Carlos Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | Gotzon Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | Alazne Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **24,73 €** (zortasuna) |
| **05** | Mª Cruz Uranga Alberdi | 48,52 € (zortasuna) |
| | Ana Mª Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | Mª Carmen Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | Juan Carlos Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | Gotzon Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | Alazne Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **485,25 €** (zortasuna) |
| **07** | Mª Cruz Uranga Alberdi | 62,21 € (zortasuna) |
| | Ana Mª Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

| | | |
|---|---|---|
| | Mª Carmen Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | Juan Carlos Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | Gotzon Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | Alazne Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **622,05 €** (zortasuna) |
| **08** | Mª Cruz Uranga Alberdi | 107,28 € (zortasuna) |
| | Ana Mª Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | Mª Carmen Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | Juan Carlos Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | Gotzon Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | Alazne Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **1.072,83 €** (zortasuna) |
| **08-1** | Julen Egia Truchuelo | 204,67 € (zortasuna) |
| | Amaia Arrayet Garmendia | 204,67 € (zortasuna) |
| | Juana Urdampilleta Zubeldia | 204,67 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **682,23 €** (zortasuna) |
| **09** | Tirso Otamendi Jauregi | 7.882,59 € (desjabetza + zortasuna) |
| | Inmaculada Ibarguren Lasa | 4.882,58 € (desjabetza + zortasuna) |
| | **Guztira** | **15.765,17 €** (desjabetza + zortasuna) |
| **10** | Jose Ramon Zabala Goicoechea | 4.255,70 € (desjabetza) |
| | Mª Belen Iturralde Urquizu | 4.255,71 € (desjabetza) |
| | **Guztira** | **8.511,41 €** (desjabetza) |
| **11** | Jose Ramon Zabala Goicoechea | 2.312,31 € (desjabetza + zortasuna) |
| | Mª Belen Iturralde Urquizu | 2.312,31 € (desjabetza + zortasuna) |
| | **Guztira** | **4.624,62 €** (desjabetza + zortasuna) |

Honela izan beharko luke,

| Proiektuko lurzatia | Jabea | Ordaintzekoa |
|---|---|---|
| **03** | Jose Ramon Emanalde Tolosa | **311,08 €** (zortasuna) |
| **04** | Mª Cruz Uranga Alberdi | 2,47 € (zortasuna) |
| | Ana Mª Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | Mª Carmen Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | Juan Carlos Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | Gotzon Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | Alazne Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **24,73 €** (zortasuna) |
| **05** | Mª Cruz Uranga Alberdi | 48,52 € (zortasuna) |
| | Ana Mª Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | Mª Carmen Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | Juan Carlos Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | Gotzon Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | Alazne Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **485,25 €** (zortasuna) |
| **07** | Mª Cruz Uranga Alberdi | 62,21 € (zortasuna) |

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

| | | |
|---|---|---|
| | Ana Mª Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | Mª Carmen Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | Juan Carlos Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | Gotzon Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | Alazne Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **622,05 €** (zortasuna) |
| **08** | Mª Cruz Uranga Alberdi | 107,28 € (zortasuna) |
| | Ana Mª Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | Mª Carmen Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | Juan Carlos Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | Gotzon Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | Alazne Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **1.072,83 €** (zortasuna) |
| **08-1** | Julen Egia Truchuelo | 204,67 € (zortasuna) |
| | Amaia Arrayet Garmendia | 204,67 € (zortasuna) |
| | Juana Urdampilleta Zubeldia | 272,89 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **682,23 €** (zortasuna) |
| **09** | Tirso Otamendi Jauregi | 7.882,59 € (desjabetza + zortasuna) |
| | Inmaculada Ibarguren Lasa | 7.882,58 € (desjabetza + zortasuna) |
| | **Guztira** | **15.765,17 €** (desjabetza + zortasuna) |
| **10** | Jose Ramon Zabala Goicoechea | 4.255,70 € (desjabetza) |
| | Mª Belen Iturralde Urquizu | 4.255,71 € (desjabetza) |
| | **Guztira** | **8.511,41 €** (desjabetza) |
| **11** | Jose Ramon Zabala Goicoechea | 2.312,31 € (desjabetza + zortasuna) |
| | Mª Belen Iturralde Urquizu | 2.312,31 € (desjabetza + zortasuna) |
| | **Guztira** | **4.624,62 €** (desjabetza + zortasuna) |

››

**BIGARRENA.-** Gaiaren inguruan Hirigintzako AOTak 2024ko urriaren 18an egin du azterketa juridikoa:

*‹‹LEHENA.- Gaiaren inguruan egiten den honako **azterketa juridikoa**:*

*I. Toki-korporazioek ondasunak eta eskubideak kostu bidez eskura ditzakete, desjabetzeko ahalmena erabiliz. Nahitaezko desjabetzeetatik eratorritako ondasunen eskurapenak berariazko araudiaren arabera arautzen dira.*

*Nahitaezko desjabetzea egiteko, ezinbestekoa izango da desjabetutako objektuaren xedea onura publikokoa edo interes sozialekoa dela aitortzea aldez aurretik. Herri-onura edo gizarte-interesa deklaratuta, desjabetzearen xederako behar-beharrezkoak diren ondasunak okupatzeko edo eskubideak eskuratzeko beharrari buruz ebatziko du Administrazioak.*

*Okupatu beharraren erabakiak desjabetze-espedientea hasten du, argitaratu egingo da eta interesdunei jakinaraziko zaie; behin irmoa denean, prezio justua zehaztuko da, eta administrazioak eta desjabetzearen xede den partikularrak ondasunak edo*

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

*eskubideak libreki eta bi aldeen adostasunez eskuratzea adostu ahal izango dute; kasu horretan, adiskidetasunezko eskuratzearen baldintzak adostu ondoren, hasitako espedientea amaitutzat emango da.*

***II.*** *Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dute:*

*- Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 21. eta 24. artikuluak.*

*- 1957ko apirilaren 26ko Dekretuaren bidez onartutako Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamenduaren 20. artikulua eta 25.etik 27.era bitartekoak.*

*- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 10. eta 11. Artikuluak*

***III.*** *Prezio justua ezartzeko eta bi aldeen adostasunez eskuratzeko, 1957ko apirilaren 26ko Dekretuaren bidez onartutako Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamenduaren 25. artikuluan zehaztutako izapideak bete beharko dira. Hamabost eguneko epean bi alderdiak ados jartzen ez badira, Nahitaezko desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 25.etik 35.era bitarteko artikuluetan ezarritako bidezko prezioa zehazteko prozedura arrunta jarraitu beharko da.*

***IV.*** *Desjabetzeko Epaimahaiaren erabakiaren aurreko espedientearen izapidetzearen edozein egoeratan, bi aldeak ados jar daitezke, eta prezio justua zehazteari buruz egindako jarduketak ondoriorik gabe geratuko dira.*

***V.*** *Prozedura honi jarraitu behar zaio:*

***A.*** *Okupatu beharraren erabakiarekin nahitaezko desjabetze-espedientea hasitakoan, desjabetzeaz arduratzen den Zerbitzuko Burutzak bere proposamena egingo du. Proposamen horretan, jabearekin lortu den akordioa zehaztu beharko du, eta desjabetzearen xede den ondasunaren balioa zehaztea ahalbidetuko duten aurrekariak eta ezaugarriak igorri beharko ditu.*

***B.*** *Zerbitzuburuaren proposamena kontuan hartuta, zerbitzu teknikoek ondasunaren balorazio-txostena egingo dute.*

***C.*** *Zerbitzu Teknikoen txostena espedienteari erantsita, organo eskudunari helaraziko zaio, bi aldeen adostasunez eskuratzearen prezioa zehazteari buruzko ebazpen-proposamena egin dezan, eta gastuaren fiskalizazioari buruzko txostena egingo da.*

***D.*** *Espedientea Osoko Bilkurari aurkeztuko zaio, bi aldeen adostasunez eskuratzearen baldintzak onar ditzan; horrela, hasitako espedientea amaitutzat emango da.*

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

***E.*** *Alkatetzari dagokio balio justua ordaintzeko betebeharra aitortzea eta agintzea, bai eta dagokion ordainketa- eta okupazio-akta sinatzea ere.*

***ONDORIOAK***

*Kontuan izanik aurrekariak, ingurumen eta landa eremuko teknikariak egindako txostenean jasotakoa eta aplikatu beharreko lege-xedapenak, hauxe da proprosatzen dudana:*

*LEHENA.- Ondasuna adostasunez eskuratzeko prezio hau onartzea:*

| Proiektuko lurzatia | Jabea | Ordaintzekoa |
|---|---|---|
| 03 | Jose Ramon Emanalde Tolosa | **311,08 €** (zortasuna) |
| 04 | Mª Cruz Uranga Alberdi | 2,47 € (zortasuna) |
| | Ana Mª Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | Mª Carmen Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | Juan Carlos Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | Gotzon Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | Alazne Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **24,73 €** (zortasuna) |
| 05 | Mª Cruz Uranga Alberdi | 48,52 € (zortasuna) |
| | Ana Mª Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | Mª Carmen Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | Juan Carlos Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | Gotzon Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | Alazne Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **485,25 €** (zortasuna) |
| 07 | Mª Cruz Uranga Alberdi | 62,21 € (zortasuna) |
| | Ana Mª Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | Mª Carmen Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | Juan Carlos Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | Gotzon Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | Alazne Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **622,05 €** (zortasuna) |
| 08 | Mª Cruz Uranga Alberdi | 107,28 € (zortasuna) |
| | Ana Mª Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | Mª Carmen Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | Juan Carlos Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | Gotzon Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | Alazne Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **1.072,83 €** (zortasuna) |
| 08-1 | Julen Egia Truchuelo | 204,67 € (zortasuna) |
| | Amaia Arrayet Garmendia | 204,67 € (zortasuna) |
| | Juana Urdampilleta Zubeldia | 272,89 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **682,23 €** (zortasuna) |
| 09 | Tirso Otamendi Jauregi | 7.882,59 € (desjabetza + zortasuna) |
| | Inmaculada Ibarguren Lasa | 7.882,58 € (desjabetza + zortasuna) |
| | **Guztira** | **15.765,17 €** (desjabetza + zortasuna) |

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

| | | |
|---|---|---|
| **10** | Jose Ramon Zabala Goicoechea | 4.255,70 € (desjabetza) |
| | Mª Belen Iturralde Urquizu | 4.255,71 € (desjabetza) |
| | **Guztira** | **8.511,41 €** (desjabetza) |
| **11** | Jose Ramon Zabala Goicoechea | 2.312,31 € (desjabetza + zortasuna) |
| | Mª Belen Iturralde Urquizu | 2.312,31 € (desjabetza + zortasuna) |
| | **Guztira** | **4.624,62 €** (desjabetza + zortasuna) |

*BIGARRENA.- Adostutako prezioa 32.099,37 eurokoa dela onartzea eta xedatzea, betiere egiten den fiskalizazio-txostena onartu ondoren.*

*HIRUGARRENA.- Alkatetzari erabakia helaraztea, onartutako zenbatekoaren betebeharra eta ordainketa onar ditzan, bai eta dagozkion ordainketa- eta okupazio-aktak sina ditzan ere.*

*LAUGARRENA.- Akordio honen berri ematea Kontu-hartzailetzari eta Diruzaintzari, dagozkion ondorioetarako.*

*BOSGARRENA.- Hartutako erabakia desjabetutako jabeari jakinaraztea.››*

**HIRUGARRENA.-** Gaiaren inguruan Hirigintzako kontuhartzailetzak 2024ko azaroaren 13an egin du fiskalizazio txostena:

*‹‹JAKINARAZTEN DUT*

***Lehena.-*** *Adierazitako araudian xedatutakoa kontuan hartuz eta espedienteko dokumentazioa ikusita, espedientearen izaerari dagozkion oinarrizko baldintzak fiskalizatu dira, eta fiskalizazioaren emaitzak txosten honen eranskinean jaso dira: baldintzak betetzat eman direnean, BAI adierazi da azkeneko zutabean; baldintzak espedienteari ez zaizkiola aplikatu behar ondorioztatu denean, EZ DAGOKIO adierazi da; eta baldintzak ez direla bete ondorioztatu denean, EZ adierazi da.*

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

**FISKALIZAZIO EDO OMISIO TXOSTENAREN ERANSKINA**

AZTERTUTAKO BETEKIZUNAK:

| ZK. | Betekizun Id. | Erreparo mota | Lege Erref. | Oinarrizko betekizun orokorrak | BAI/EZ/EZ APLIKAGARRIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 4.2.4.01 | A.1 ERAGOZPEN ETENERAZLEA | TEAFA 19.3 art. AEFD 3.5. 4 BKFD 13.2 a) art. | Aurrekontu-kreditua egotea; proposatutako kreditua egokia izatea kontuan hartuta proposatzen den gastuaren izaera, eta espedienteari eranstea kreditua dagoenaren ziurtagiria edo antzeko agiri bat. | Bai |
| 2 | 4.2.4.02 | A.2 ERAGOZPEN ETENERAZLEA | BKFD 13.2 a) art. | Finantzaketa lotuko gastuen aurretiazko izapidetzea bada, baldintza etenarazle hau sartzea: gastua baimendu ahal izateko, kreditua egotea gastua egin beharreko ekitaldian, eta hura finantzatzen duen bitartekoa kontsolidatuta egotea. | Ez aplikagarria |
| 3 | 4.2.4.03 | A.3 ERAGOZPEN ETENERAZLEA | BKFD 13.2 a) art. | Finantzaketa lotu gabeko gastuen aurretiazko izapidetzea bada, baldintza etenarazle hau sartzea: gastua baimendu ahal izateko, kreditua egotea gastua egin beharreko ekitaldian. | Ez aplikagarria |
| 4 | 4.2.4.04 | A.4 ERAGOZPEN ETENERAZLEA | BKFA 13.2 b) art. TEAFA 41 art. NDE 3.4 art. | Gastua organo eskudunak sortzen duela. | Bai Udalbatza |
| 5 | 4.2.4.05 | B.1 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA | NDE 25 art. | Desjabetzearen ardura duen organoaren proposamena dagoela, eta bertan jabearekin lortutako akordioa zehazten dela, aurrekariak eta desjabetu beharreko ondasunaren balioa neurtzea ahalbidetzen duten ezaugarriak bidalita. | Bai |
| 6 | 4.2.4.06 | B.2 ERAGOZPEN EZ ETENERAZLEA | NDE 25 art. | Dagozkion zerbitzu teknikoen txostena dagoela desjabetu beharreko ondasunaren balioari buruz. | Bai |
| 7 | 4.2.4.07 | B.3 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA | NDL 9 art. | Desjabetutako objektuari atxiki behar zaion xedearen onura publikoaren edo gizarte interesaren aurretiazko adierazpena dago. | Bai |

*Beraz, egin den aldez aurretiazko fiskalizazioa mugatua izan da eta 2021/7/29 datako osoko bilkuraren erabakian ezarritako baldintzak baino ez dira berrikusi.*

***Bigarrena.-** Aztertutako 4.2.4.01 betekizunari dagokionean, nahiko kreditua eta egokia dago 2024ko aurrekontuan proposatzen den 32.099,37 euroko gastua baimentzeko 0700.620.01.160.00 2023 aurrekontu partidan.*

*Kreditu txertatua izanik, aurtengo ekitaldiaren barruan erabili beharko da, 21/2003 Foru Arauaren 32. artikuluaren arabera.*

***Hirugarrena.-** 4.2.4.04 betekizunari dagokionean, eskumena Udaltzari dagokio, nahitaezko desjabetzeari buruzko legearen erregelamenduaren 3. artikuluaren arabera.*

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

*FISKALIZAZIO TXOSTENAREN ONDORIOAK*

*Prozeduraren fase honetan, erreferentziako espedientea fiskalizatzen da honako emaitza honekin, lehen deskribatutako moduan eta baldintzetan:*

*ALDEKOA ››*

**Tolosako udaleko Lurraldea Batzordeak, 2024ko azaroaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:**

**Aldeko botoak:** Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitzol Garzia Azurmendi, Aitor Agirresarobe Murgi, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**I R I Z P E N A**

**LEHENA.-** Ondasuna adostasunez eskuratzeko prezio hau onartzea:

| Proiektuko lurzatia | Jabea | Ordaintzekoa |
|---|---|---|
| **03** | Jose Ramon Emanalde Tolosa | **311,08 €** (zortasuna) |
| **04** | Mª Cruz Uranga Alberdi | 2,47 € (zortasuna) |
| | Ana Mª Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | Mª Carmen Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | Juan Carlos Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | Gotzon Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | Alazne Arocena Uranga | 4,45 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **24,73 €** (zortasuna) |
| **05** | Mª Cruz Uranga Alberdi | 48,52 € (zortasuna) |
| | Ana Mª Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | Mª Carmen Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | Juan Carlos Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | Gotzon Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | Alazne Arocena Uranga | 87,34 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **485,25 €** (zortasuna) |
| **07** | Mª Cruz Uranga Alberdi | 62,21 € (zortasuna) |
| | Ana Mª Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | Mª Carmen Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | Juan Carlos Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | Gotzon Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |
| | Alazne Arocena Uranga | 111,97 € (zortasuna) |

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

| | | |
|---|---|---|
| | **Guztira** | **622,05 €** (zortasuna) |
| **08** | Mª Cruz Uranga Alberdi | 107,28 € (zortasuna) |
| | Ana Mª Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | Mª Carmen Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | Juan Carlos Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | Gotzon Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | Alazne Arocena Uranga | 193,11 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **1.072,83 €** (zortasuna) |
| **08-1** | Julen Egia Truchuelo | 204,67 € (zortasuna) |
| | Amaia Arrayet Garmendia | 204,67 € (zortasuna) |
| | Juana Urdampilleta Zubeldia | 272,89 € (zortasuna) |
| | **Guztira** | **682,23 €** (zortasuna) |
| **09** | Tirso Otamendi Jauregi | 7.882,59 € (desjabetza + zortasuna) |
| | Inmaculada Ibarguren Lasa | 7.882,58 € (desjabetza + zortasuna) |
| | **Guztira** | **15.765,17 €** (desjabetza + zortasuna) |
| **10** | Jose Ramon Zabala Goicoechea | 4.255,70 € (desjabetza) |
| | Mª Belen Iturralde Urquizu | 4.255,71 € (desjabetza) |
| | **Guztira** | **8.511,41 €** (desjabetza) |
| **11** | Jose Ramon Zabala Goicoechea | 2.312,31 € (desjabetza + zortasuna) |
| | Mª Belen Iturralde Urquizu | 2.312,31 € (desjabetza + zortasuna) |
| | **Guztira** | **4.624,62 €** (desjabetza + zortasuna) |

**BIGARRENA. -** Adostutako prezioa 32.099,37 eurokoa dela onartzea eta xedatzea.

**HIRUGARRENA. -** Alkatetzari erabakia helaraztea, onartutako zenbatekoaren betebeharra eta ordainketa onar ditzan, bai eta dagozkion ordainketa- eta okupazio-aktak sina ditzan ere.

**LAUGARRENA. -** Akordio honen berri ematea Kontu-hartzailetzari eta Diruzaintzari, dagozkion ondorioetarako.

**BOSGARRENA. -** Hartutako erabakia desjabetutako jabeari jakinaraztea.››

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du ondasuna adostasunez eskuratzeko prezioa.

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

6. **UDALBATZAREN ESKUMENEKO IZENDAPENAK ALDATZEA BESTE ERAKUNDEETAN.**

Alkatetzaren proposamena Udalbatza Plenoari.

**AURREKARIAK**

**LEHENA.-** Tolosako udalbatzak, 2023ko uztailaren seian egindako osoko bilkuran, besteak beste, hainbat organo eta sozietate publikotan udal honen ordezkariak izendatzea erabaki zuen. Izendapen horien artean, EAJ/PNV taldeko zinegotzi ohia, Xabier Balerdi Tolosa J., organo hauetako kide izendatu zuen:

- TOLOSA GASA, S.A.ren administrazio-kontseiluko kidea.
- TOLARGI, S.L.ren administrazio-kontseiluko kidea.
- Udal Euskaldunen Mankomunitatearen aurrean Tolosako udalaren ordezkaria

**BIGARRENA.-** Xabier Balerdi Tolosa Jk, zinegotzi karguari uko egin zion 2024ko irailaren 17an izenpeturiko idazkian, eta udalbatzak, 2024ko irailaren 26an egindako bilkura, horren berri izan zuen.

**HIRUGARRENA.- 2024ko azaroaren 21ean aurkeztutako idazkiaren bidez, Xarles Iturbe Pasban Jk., EAJ/PNV udal-taldeko bozeramaileak, hainbat izendapen proposatu ditu Xabier Balerdi jaunaren ordez. Horien artean, udalbatza osoaren eskumeneko izendapenak Lehenengo aurrekarian adierazitakoak dira.**

**ARAUDI APLIKAGARRIA**

2568/ 1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubideari buruzkoak, bere 38. artikuluan, ondoko hau xedatzen du: *Dentro de los treinta días siguientes al de la sesión constitutiva, el Alcalde convocará la sesión o sesiones extraordinarias del Pleno de la Corporación que sean precisas, a fin de resolver sobre los siguientes puntos:…..”c) Nombramientos de representantes de la Corporación en órganos colegiados, que sean de la competencia del Pleno”.* Kasu honetan, aurrekoaren ordez ordezkari berriak izendatzea organo bakoitzaren estatutuak kontuan hartuta proposatzen da.

Beraz, udalbatza plenoak Tolosako udalak beste erakundeetan dituen ordezkaritzak ebatzi behar ditu, beti ere bere eskumenari dagozkion izendapenak badira. Kontuan hartu behar da, erakundeetako eratze- edo antolatze-tituluetan Tolosako udalari eskumen generikoa esleitzen bazaio, Alkatetzari dagokion ahalmen hori, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.1.s) artikuluan xedatutakoaren arabera. Aipaturiko artilukuak alkatearen ahalmenak arautzen ditu, eta horien artean: *s) Las demás*

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

*que expresamente le atribuyan la leyes y aquellas que la legislación del Estado o de las comunidades autónomas asignen al municipio y no atribuyan a otros órganos municipales.* Bestaldetik, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoko Araubidea arautzen duenak, bere 8.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, organo administratiboen eskumena utziezina da.

Erakunde ezberdinetako Estatutu eta Barne Araudiak aztertu ondoren, Alkatetzak Udalaren Osoko Bilkurari hurrengoko

**PROPOSAMENA LUZATZEN DIO:**

**LEHENIK.-** Tolosako udalak parte hartzen duen organo kolegiatu hauetan ondorengo ordezkariak izendatzea, Xabiero Balerdi Tolosa, EAJ/PNV zinegotziaren kargu-uztearen ondoren:

**IZENDAPENAK**

| ERAKUNDEA | KIDEA |
|---|---|
| **TOLOSA GASA SA** | Jose Francisco Amantegi Zubiria, EAJ-PNV |
| **TOLARGI SL** | Jose Francisco Amantegi Zubiria, EAJ-PNV |
| **UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA** | Xarles Iturbe Pasaban, EAJ-PNV |

Izendatuek onartu behar dituzte esleitutako karguak eta aitortu behar dute, batetik, betetzen dituztela kasuz kasuko baldintzak, eta bestetik, indarrean dagoen legediak aurreikusten dituen ezgaitasun edo bateraezintasun arrazoietan ez daudela sartuta.

**BIGARREN.-** Tolosako udalak bere kapital propioz osaturiko sozietateen kasuan, Lehendakariari ahalmena ematea beharrezkoak diren agiri eta eskritura publikoak egiletsi ditzala, izendapen hauek Merkataritza Erregistroan inskribatu arte.

**HIRUGARREN.-** Hartutako ebazpenak erakunde interesatuei jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Udalbatzaren eskumeneko izendapenak aldatzea beste erakundeetan.

## 7. BERRI EMATEA: EAJ/PNV UDAL-TALDEKO KIDE ETA ORDEZKOAK ALDATU EGIN DIRA INFORMAZIO-BATZORDEETAN ETA KIDE ANITZEKO ORGANOETAN

### AURREKARIAK

**LEHENA.-** Tolosako udalbatzak, 2023ko uztailaren hogeita zazpian egindako osoko bilkuran, besteak beste, udal taldeetako bozeramaileek proposatutako hiru Lan Esparruetako -Antolakuntza, Lurraldea, Herritarrak- Informazio Batzordeetako kideen osaeraren berri izan zuen.

Horien artean, Xabier Balerdi Tolosa Jk., EAJ/PNV udal taldeko kideak, honako Batzorde hauetako kide izendatu zen:

- Ordezkoa, Antolakuntza Batzordea, Ainhoa Dominguez Landa A.ren ordez.
- Ordezkoa, Lurraldea Batzordean, Patxi Amantegi Zubiria J.ren ordez.
- Ordezkoa, Herritarren Batzordean, Leire Zubeldia Rezola A.ren ordez.

Halaber, aipaturiko zinegotzia EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEko kidea zen, udal taldeak proposatuta.

**BIGARRENA.-** Xabier Balerdi Tolosa Jk, zinegotzi karguari uko egin zion 2024ko irailaren 17an izenpeturiko idazkian, eta udalbatzak, 2024ko irailaren 26an egindako bilkura, horren berri izan zuen.

**HIRUGARRENA.-** 2024ko azaroaren 21ean aurkeztutako idazkiaren bidez, Xarles Iturbe Pasban Jk., EAJ/PNV udal-taldeko bozeramaileak, hainbat izendapen proposatu ditu Xabier Balerdi J.ren ordez.

Beraz, Tolosako udalbatzari honako gaiaren **BERRI EMATEN ZAIO**:

**LEHENA**.- Aldatzea Tolosako udaleko Lan Esparruetako -Antolakuntza, Lurraldea, Herritarrak- Informazio Batzordeetako EAJ/PNV udal taldearen ordezkariak, Xabier Balerdi Tolosa J.ren kargu uztearen ondorioz:

- Antolakuntza: Ordezkoa, Patxi Amantegi Zubiria J. (Ainhoa Dominguez Landa A.ren ordez).
- Lurraldea: Ordezkoa, Biotxa Agirre Ugalde A. (Patxi Amantegi Zubiria J.ren ordez)
- Herritarrak: Ordezkoa, Biotxa Agirre Ugalde A. (Leire Zubeldia Rezola A.ren ordez).

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

**BIGARRENA.-** Izendatzea Biotza Agirre Ugalde A. Euskararen Aholku Batzordean, EAJ/PNV udal taldearen izenean.

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

## 8. 2024/2577 DEKRETUAREN BERRI EMATEA: ALKATETZAK TOKIKO GOBERNU BATZARRARI ESKUMENA DELEGATZEKO EBAZPENA

2024/2577 Alkatetza dekretuak honela dio:

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUIk, Tolosako Udaleko alkate-udalburuak, emana, bat etorrita apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

**IKUSIRIK**

**Lehena.-** 2023ko uztailaren 17ko 2023/1707 Alkatetzaren ebazpen bidez, Alkatetzak Tokiko Gobernu Batzarrari legeak emandako hainbat eskumen eskuordetu zizkion, horien artean Giza Baliabidetako kudeaketari zegozkion gaiak.

Eskumen horien artean, “karrerako funtzionarioak hautatzeko zein lanpostu finkoak hornitzeko oinarriak onartzea” Tokiko Gobernu Bazarrari eskuordetzea erabaki zuen.

**Bigarrena.-** Aldiz, oinarriak arautzen duten deialdia onartzeko eskumena Alkatetzaren gain geratu zen.

Hori horrela, oinarriak onartzeko eskumen eta deialdi onartzea eskumen organo desberdinen gain uztea, ez du zentzurik kudeaketa eraginkor baten ikuspuntutik. Horregatik, proposatzen da deialdiak onartzeko eskumena Alkateak Tokiko Gobernu Batzarrarengan eskuordetzea.

**LEGE XEDAPENAK ETA GAIAREN AZTERKETA**

**Lehena**.- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 102 artikuluan honelaxe dio:

> *“1. Las pruebas de selección y los concursos para la provisión de puestos de trabajo, a que se refiere el presente Capítulo, se regirán por las bases que apruebe el Presidente de la Corporación, a quien corresponderá **su convocatoria**.”*

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

**Bigarrena**.- 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena, eskuordetzaren inguruan honako xedatzen du:

***"Art. 43.***

*1. El Alcalde puede delegar sus atribuciones, salvo las mencionadas en los artículos 21.3 y 71 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, en los términos previstos en este artículo y en los siguientes.*

*2. El Alcalde puede efectuar delegaciones en favor de la Comisión de Gobierno, como órgano colegiado. En tal caso, los acuerdos adoptados por ésta en relación con las materias delegadas, tendrán el mismo valor que las resoluciones que dicte el Alcalde en ejercicio de las atribuciones que no haya delegado, sin perjuicio de su adopción conforme a las reglas de funcionamiento de la Comisión.*

*…/…*

*Art. 44.*

*1. Todas las delegaciones a que se refiere el artículo anterior serán realizadas mediante Decreto del Alcalde que contendrá el ámbito de los asuntos a que se refiere la delegación, las facultades que se deleguen, así como las condiciones específicas de ejercicio de las mismas, en la medida en que se concreten o aparten del régimen general previsto en este Reglamento.*

*2. La delegación de atribuciones del Alcalde surtirá efecto desde el día siguiente al de la fecha del Decreto, salvo que en ella se disponga otra cosa, sin perjuicio de su preceptiva publicación en el «Boletín Oficial» de la Provincia y en el municipal, si existiere.*

*3. Las normas de los apartados anteriores serán aplicables a cualquier modificación posterior de las delegaciones.*

*4. De todas las delegaciones y de sus modificaciones se dará cuenta al Pleno en la primera sesión que éste celebre con posterioridad a las mismas."*

Horiek horrela, Alkate honek, ondoko hau

**EBATZI DU**

**Lehena.-** Karrerako funtzionarioak hautatzeko zein lanpostu finkoak hornitzeko deialdiak onartzeko eskumena Alkateak Tokiko Gobernu Batzarrarengan eskuordetzea.

**Bigarrena.-** Akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko egoitza elektronikoan argitaratzea

*Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.*

ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9

**Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.**

Nire aurrean

Alkatea — Idazkaria

Angel Martinez de Rituerto Arregui — Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**9. GALDERAK ETA ESKAERAK**

Besterik gabe, 19:30ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA — IDAZKARIA

*O.e.*



EKS | CSV: ESKU3ca92bad-6371-4e18-a501-378ad4d8fcc9
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110*

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| | |
|---|---|
| **Titulua / Título:** | 2024IPLE0014-2024/11/28ko ohiko osoko bilkuraren akta/2024/11/28ko ohiko |

Sinatzailea 1 / Firmante 1: MARIA BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ - 15924469M
Data / Fecha: 2024/12/02 14:59:24

Sinatzailea 2 / Firmante 2: ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI - 72438134W
Data / Fecha: 2024/12/02 16:50:50